

Lontxo Oihartzabal jn.
Lehendakaria

05/04 IRIZPENA

Javier del Campo jn.
Gaizka Gabantxo jn.
José Ramón Kortabitarte jn.
Pilar Ramírez and.
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2005eko otsailaren 15eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: *Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua izateko baldintzak eta prozedura ezartzeko agindu proiektuari buruz.*

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

SARRERA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua izateko baldintzak eta prozedura ezartzeko agindu proiektua, kasuan kasuko aginduzko txostena eman dezan.

Era berean, Ikasketa eta Erregimen Juridikoko Zuzendaritzaren txostena, Lanbide Heziketako zuzendariaren memoria eta sailburuordeak araua lantzeko prozedurari ekiteko emandako 2004ko abenduaren 17ko Agindua igorri dizkio.

I.- AURREKARIAK

Lanbide Trebakuntzari eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren helburua ondokoa da: lanbide heziketaren, kualifikazioen eta egiaztapenen sistema integrala antolatzea, gizarte eta ekonomi eskaerei eraginkortasunez eta gardentasunez erantzuteko, hezkuntza modalitate desberdinen bidez.

5/2002 Lege Organikoak bere 11. kapituluan zehazten duenez, Administrazio eskudunek Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua izateko baldintza espezifikoak ezarriko dituzte. Halaber, Administraziooi dagokie Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak sortu, baimendu, homologatu eta kudeatzea. Horrez gain, autonomia erkidegoek Lanbide Heziketako zentro integratuen osaera eta eginkizunak beren ezaugarri berezietara egokituko dituzte.

Azkenik, lege horren arabera, Lanbide Heziketako berrikuntza eta esperimentazioa autonomi erkidego guztietan ezarritako ikastetxe –produktzio sektore guztietan espezializatuak– sare baten bitartez garatuko dira. Horretarako, ikastetxe horiek prestakuntza ekintzak bil ditzakete ikasleentzat, landun langileentzat eta langabetuentzat, enpresaburuentzat eta trebatzaileentzat.

223/2004 Dekretua, azaroaren 23koa, Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuaren figura sortu eta arautzen duena. Dekretu horren bigarren artikuluan xedatu bezala, Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua da lanbide Heziketako ikastetxe bat, publiko zein itunpekoa, Berariazko Lanbide Heziketa, Etengabeko Lanbide Heziketa, edota Lanerako Lanbide Prestakuntza eskaini eta ematen dituena eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztutako baldintzak betetzen dituena.

II.- EDUKIA

Dekretuaren proiektu honek zazpi artikulua, xedapen gehigarri bat, hiru xedapen iragankor eta hiru azken xedapen ditu.

Lehenengo artikuluan, Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak sortzeko eta izaera horri eusteko baldintzak arautzen dira.

Bigarren artikuluan, berriz, LHn integratutako ikastetxeek bete behar dituzten betekizunak ezartzen dira.

Hirugarren artikuluan ezarri legez, ikastetxeak ebaluatu egingo dira, bigarren artikuluko betekizunak betetzen dituzten ala ez zehaztu ahal izateko. Horrez gain, ikastetxeek egindako barneko ebaluazioaz (autoebaluazioa) gainera, Lanbide Heziketako Zuzendaritzak behar besteko kanpoko ebaluazio egingo du. Halaber, ebaluazioaren ezaugarriak eta ondorioak zehaztuko dira.

Laugarren artikuluan ezarri bezala, ikastetxe integratua izateko, I. Eranskinean zehaztutako eredu ofizialari egokitu behar zaio. Halaber, epeak eta prozedura finkatzen dira.

Bosgarren artikulua Balorazio batzordea eratzeari buruzkoa da, ikastetxeetan egindako ebaluazioak eta aurkeztutako eskabideak azter ditzan. Seigarren artikuluan, berriz, batzorde horren jarduera prozedura ezarri da.

Zazpigarren artikuluan, Lanbide-heziketako Ikastetxe Integratu bihurtu diren ikastetxeen behin-behineko zerrenda argitaratzeko prozedura dago xedaturik.

8. artikuluan ezarri legez, lehenengo hirurtekoa 2005, 2006 eta 2007 urteei dagokiena da.

Xedapen gehigarriaren arabera, Berriztapen Teknologikoko Institutuak eta Institutu tekniko bereziak ez daude behartuta 2. artikuluko e-1 eta e-2 baldintzak betetzera.

Lehenengo Xedapen Iragankorrean ezarri bezala, 2001eko urtarrilaren 29ko aginduaren 1. artikuluan zerrendatutako ikastetxeak Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratutzat joko dira. II. eranskinean agertzen dira ikastetxeok.

Bigarren Xedapen Iragankorrean arautu bezala, 2006ko abenduaren 31ra arte izango dute agindu honen 2. artikuluko e-4 betekizuna gauzatzeko, beti ere bertan azaldutako egoeretakoren batean baldin badaude. Data horretarako, kanpoko

ebaluazioan agertutako EFQMko 400 puntuak eskuratu ez dituzten ikastetxeak ez dira Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratutzat joko.

Hirugarren Xedapen Iragankorrean ezarri bezala, 2005-2007 hirurtekoan, epe berezia zabalduko da, hots, 2005eko maiatzaren bigarren hamabostaldia, Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua izateko eskabidea aurkezteko.

Lehenengo Azken Xedapenaren arabera, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeak jarraibide zehatzak eman ditzake, agindu hau aplikatzeko. Bigarren xedapena errekurtsioei buruzkoa da, eta hirugarrena, berriz, dekretuaren indarraldiari buruzkoa.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Agindu proiektu honen helburua Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuaren figura sortu eta arautzen duen 223/2004 Dekretua osatzea da, laugarren artikulua garatzen baitu, non ikastetxe integratua izateko betekizunak ezartzen ziren.

Era berean, betekizun horiek Balorazio batzordearen bidez egiaztatzeko prozedura ezartzen da. Xedapen gehigarrian eta iragankorretan aipatu bezala, ondokoak dira ikastetxe integratutzat joko direnak: EAEko bi Berriztapen Teknologikoko institutuak, 5 Institutu tekniko bereziak, eta bestelako 33 ikastetxe integralak. Izan ere, azken horiek 2006ko amaiera arte izango dute aginduaren 2. artikuluko 4 betekizunak gauzatzeko, hau da, kanpoko ebaluazioan EFQMko 400 puntuak eskuratzeko.

Ikastetxe horien behin-behineko gaikuntzari dagokionez, esan behar dugu bik ez dutela e-2 betekizuna betetzen, izan ere, 6 prestakuntza ziklo eskaini behar dira. Deigarria da eperik ezarri ez izana bigarren baldintza hori betetzeko. Hirugarren artikuluan azalduko balorazio prozeduraren arabera, baldintza hori betetzen ez bada, 1. Xedapen Iragankorrari esker eskuratu berri den izaera galtzen da. Honekin batera doa 2004-05 ikasturtean gutxieneko 6 zikloak eskaintzen ez dituzten ikastetxe integralen zerrenda.

Horrez gainera gogoan hartu behar dugu Balorazio batzordeari egokitutako funtzioen izaerari buruz bosgarren artikulua dioena: “ikastetxei egindako ebaluazioak eta aurkeztutako eskabideak aztertzea”, ikastetxe integratuko izaera eskuratu edo berorri eusteko. Hortaz, bi gai bereizi behar dira, alegia: batetik, ikastetxei egindako barneko eta kanpoko –agente instituzionalena edo ez instituzionalena- ebaluazioa, eta bestetik, Balorazio batzordeak egindakoa, ez baita benetako ebaluazioa, baizik eta bigarren artikuluan adierazitako betekizunak betetzen diren a la ez egiaztatzea. Hartara, ez da komenigarria ebaluazioa eta betekizunen balorazioa nahastea, beraz, gomendatzen dugu 3. artikuluko bigarren paragrafoa zuzentzea: Balorazio batzordeak “ebaluazioari buruzko txostena emango du”.

Artikulu bereko hirugarren paragrafoan, anbigutasun kutsuari eusten zaio, esaten baita ebaluazio horren ondorioz, ikastetxe integratuko izaerari “eutsi edo berorri ken litekeela”. Eta “eutsi edo kenduko dela” esan beharko litzateke, ze lehen esan bezala eta artikulu horren hasieran hitzez hitz aipatu legez, ebaluazioaren helburua “bigarren artikuluan ezarritako betekizunen betepen maila zehaztea” baino ez da.

“Betepen maila” adierazpena bera ez da zuzena, ez baita eskala kualitatibo edo mailakatua zehazten; izan ere, bost betekizunak, banan-banan, osorik betetzen diren ala ez egiaztatzen da. Hortaz, egokiagoa da “betepena” “betepen maila” baino.

3. artikuluan, akats bat antzeman da: “6. artikulua” esan beharrean, “5. artikulua” adierazi behar da. I. Eranskinean, beste akats txiki bat antzeman da: 3) puntuan ezarri legez, bost betekizunak 223/2004 Dekretuan daude xedaturik, baina ez da zuzena, aginduan ezarri baitira.

Komenigarria da 2.a artikuluko “proiektu estrategikoa” eta I. Eranskinaren a) ataleko “hezkuntza proiektua” –estrategikoa garatzen duena- terminoak batzea, kontzeptu berberaren gainekoa baitira.

Eranskina: 2004-05 ikasturtean bigarren artikuluko e-2 baldintza bete ez duten ikastetxe integralen zerrenda.

Udalerrria	Sarea	Ikastetxea	Eskaintako kop.	ziklo
Andoain	Pribatua	La Salle-Berrozpe	5	
Irun	Pribatua	La Salle	5	

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2005eko otsailaren 16an

IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Iz. Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUA.